


## Ezkontzeko batez besteko adina Euskadin 30 urtetik gorakoa da

Ezkontza zibila da gazte gehienen hautua. Gipuzkoako gazteak dira bikotekidearekin bizi izateko joerarik handiena dutenak: Euskadiko ezkontza eta bizikidetzaren indize altuenak bertan daude



Emakumeak gizonak baino gazteago ezkontzen dira: gizonak ezkontzeko batez besteko adina 33 urtekoa da; emakumeen kasuan, adin hori 31 urtekoa da. Datuok 1996koekin alderatuz gero, ezkontzeko batez besteko adina bi sexuetan bi urte atzeratu dela egiazta daiteke: 1996an gizonezkoak 31 urterekin ezkontzen ziren batez beste, eta emakumeak 29 urterekin.

Ezkontzideen batez besteko adina. EAE. 1996-2001-2004



Iturria: Eustat eta bertan egina

Euskadiko biztanleen artean, ezkontzen tasa apur bat igo da azken hamar urteetan, baina ez 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean. 2004an ezkontzen diren gizonezkoen % 27,2 15 eta 29 urte bitarteko mutilak izan dira; eta ezkontzen diren emakumezkoen guztizkoaren baitan, 15 eta 29 urte bitartekoak % 44,9 dira. 1996an, ordea, ezkontzen diren gizonezkoen % 40,9 gazteak izan ziren eta emakumezkoen artean, gazteak % 62,7. Sumatzen den beherakada hau nabarmenagoa da gazteenengan; izan ere, helduenen adin-taldean (25 eta 29 urte bitartekoengan) ezkontzen kopuruak gora egin du aurreko aldiekin konparatuta.

Sexuari bagazokio, aztertutako aldiaren ezkontzen diren nesken portzentajea altuagoa da beti mutilena baino.

**EAEko <=15-29 urteko ezkontideak, sexuaren eta adin taldearen arabera. Zenbaki absolutuak eta portzentajeak. 1996-2001-2004**

	1996		2001		2004	
	Senarrak	Emazteak	Senarrak	Emazteak	Senarrak	Emazteak
<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>&lt;=15-29</b>	<b>40,9</b>	<b>62,7</b>	<b>32,9</b>	<b>52,5</b>	<b>27,2</b>	<b>44,9</b>
<=15-19	0,6	1,3	0,5	0,6	0,4	0,9
20-24	10,4	18,2	7,0	13,1	7,0	11,3
25-29	89,1	80,5	92,7	86,3	92,6	87,8

Iturria: Eustat y bertan egina

Gero eta gazte gehiagok hautatzen dute ezkontza zibila: azkeneko hamar urteetan ezkontzeko modu honek igoera nabarmena izan du. Izatez, gaur egun, 15 eta 29 urte bitarteko hamar gaztetik hiruk aukeratzen dute ezkontza zibila. Hala eta guztiz ere, ospakizun erlijiosoa nagusi da (2004an mutilen % 70,5ek eta nesken % 69,2k hautatu dute)

Gero eta gazte gehiagok erabakitzen dute bikotekidearekin bizitzea ezkondu egon gabe. 2001ean gazteen % 4 bizi izan dira bikotekidearekin ezkondu egon gabe, 1991n baino % 3 gehiago. Datuak adin-taldeka sailkatu dira. Horrela, ikus daiteke hautu hori egin dutenak 25 eta 29 urte bitarteko biztanleen % 7 direla; 20 eta 24 urte bitartekoen % 2,5; eta, azkenik, 15 eta 19 urte bitartekoen % 0,2. Aztertutako aldian, ezkondu gabe bikotekidearekin bizi diren nesken portzentajea handiagoa da mutilena baino.

**Bikotekidearekin bizitzen ari den EAEko 15 eta 29 urte bitarteko biztanleria ezkondu gabea, adin-taldeen eta sexuaren arabera. Zenbaki absolutuak eta portzentajeak. 1991-1996-2001**

	1991		1996		2001	
	15-29 urte		15-29 urte		15-29 urte	
<b>15-29 urte</b>	531.381	100	507.233	100	433.805	100
<b>Bizikide ezkongabea</b>	7.353	1,4	12.787	2,5	17.491	4,0
Gizonezkoak	2.957	40,2	5.232	40,9	7.044	40,3
Emakumezkoak	4.396	59,8	7.555	59,1	10.447	59,7
<b>15-19 urte</b>	180.200	100	156.534	100	107.079	100
<b>Bizikide ezkongabea</b>	202	0,1	219	0,1	237	0,2
Gizonezkoak	46	22,8	49	22,4	46	19,4
Emakumezkoak	156	77,2	170	77,6	191	80,6
<b>20-24 urte</b>	176.265	100	178.762	100	150.059	100
<b>Bizikide ezkongabea</b>	2.085	1,2	2.796	1,6	3.683	2,5
Gizonezkoak	647	31,0	797	28,5	1.173	31,8
Emakumezkoak	1.438	69,0	1.999	71,5	2.510	68,2
<b>25-29 urte</b>	174.916	100	171.937	100	176.667	100
<b>Bizikide ezkongabea</b>	5.066	2,9	9.772	5,7	13.571	7,7
Gizonezkoak	2.264	44,7	4.386	44,9	5.825	42,9
Emakumezkoak	2.802	55,3	5.386	55,1	7.746	57,1

Iturria: Eustat eta bertan egina

Datuak lurralde historikoen arabera aztertuz gero, zera baieztatu daiteke: Gipuzkoak ezkontza-tasarik altuena duela (5,1), izatez, EAEkoa baino altuagoa (4,8). Izan ere, lurralde horretan ezkontzen kopuruaren hazkundera jarraitua izan da 1991tik 2004ra bitartean.

Hiru lurralde historikoetan, ezkonberrien batez besteko adina 33 urte da mutilen artean, eta 31 urte nesken artean. Ezkontzeko adina gero eta altuagoa da hiru lurraldeetan.

2004an 15 eta 29 urte bitarteko gazte ezkonberrien portzentajerik altuena izan duen lurraldea Gipuzkoa izan da (mutilen % 29,0 eta nesken % 47,4).

EAEko <=15-29 urteko ezkontideak, sexuaren eta adin taldearen arabera. Zenbaki absolutuak eta portzentajeak. 1996-2001-2004						
	Alava		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Senarrak	Emazteak	Senarrak	Emazteak	Senarrak	Emazteak
<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>&lt;=15-29</b>	<b>27,1</b>	<b>43,7</b>	<b>26,0</b>	<b>43,7</b>	<b>29,0</b>	<b>47,4</b>
<=15-19	0,5	1,0	0,5	0,7	0,3	1,0
20-24	7,1	10,5	7,5	11,8	6,3	10,8
25-29	92,3	88,5	92,0	87,4	93,5	88,1

Iturria: Eustat eta bertan egina

Ezkontza zibilen hazkundera handiagoa izan da Gipuzkoan. Bertan, ezkontzen diren mutilen % 32,4k ezkontza zibila hautatzen dute; nesken kasuan, portzentaje hori % 33,8koa da.

Bikotekidearekin ezkondu gabe bizitzea erabakitzen dutenen portzentajeak gora egin du hiru lurraldeetan. Gipuzkoa da ratorik altuena duen lurraldea (% 4,7). Atzetik Araba (% 4,3) eta Bizkaia (% 3,5) datozkio.

Erlazionaturiko datu taulak:

1. taula (pdf, 27 kb)
2. taula (pdf, 19 kb)
3. taula (pdf, 20 kb)
4. taula (pdf, 19 kb)
5. taula (pdf, 19 kb)

Erlazionaturiko estekak:

[Gazteen Euskal Behatokiaren estatistikak](#)